BERTSO BERRIAK

Maialen Lujanbio

# Abiatzeko ilusioari jarriak

## I
Hareazko erlojua
jira buelta-erdiz
denbora hasi ta buka
ahal balitz lez egiz.
Eta “Orain, orain bai,
hasiko naiz berriz!
Zerotik abiatu
nahi dut urte berriz!”.


Karlos Corbella

## II
Nahi nuen, baina ezin
inertzia zaharrekin...
Asmo berriak, egun
arrunten errekin.
“Kronometroa zeron,
urtea ber-ekin!
Gurean ezin bada,
ba txinatarrekin.”.

## III
Ezin. Joerak dauzkat
nigan harrituta...
Udaberriak keinu
egin berri du ta
nihaur nire buruaz
berriz erdituta,
zerotik hasiko naiz
kimu berrituta.

## IV
Kimu berriak jada
orbel buruzpeko...
Ikasle, ikasle-ohi
ta ikasle usteko
grinez dago kurtsoa
abiarazteko,
oraintxe da garaia
zerotik hasteko!

## V
Joan zen udazkena,
“Baina orain bai! Berriz
zerotik abiatu
nahi dut urte berriz!”.
Bi mila ta beatzi
ta ostera “remix”:
Joanean, baina beti
abiatu premiz.

## VI
Iragana ezabatu
balitza lez kasi...
honarteko bidea
desagertarazi.
Zerotik abitzea
ze giza-fantasi...
Zerora heldu zenik
ez da berriz hazi...
Ia kontraesana da
“berriz” eta “hasi”.

**DOINUA:** **Markesaren alaba**